


JON URBE / ARGAZKI PRESS



IKT gunea eta arreta zerbitzua.

HUHEZIK eskaintzen dituen Internet bidezko ikastaroak bi taldek kudeaketzen dituzte. IKT Informazio eta Komunikazio Gunea arduratu da *on-line* ikasketak bultzatzeaz. Bertako zuzendari Mikel Usabiaga dugu. Ane Urizar arreta zerbitzua gidatzen dabil. Ikasleek eduki ditzaketen arazo teknikoak konpontzeko gunea da. Astegunetan eta jaiegunetan ere behar egiten dute kideok. Hain zuzen, astia dutelako ikasleek ordenagailu aurrean ordu gehien egiten duten aldia da. Ikasleek, gainera, maisu-maistreakin noiznahi mintza daitezke.

Gela birtualak eta mundu erreala



Gela birtualak txokoak

www.huhezi.edu

- Pasa-hitza beharrezkoa da gela birtualak guneotara sartzeko.
- Lan eremua:** Irakasgaiak bertan daude. Ikasturtea aurrera joan ahala, modulu batzuk edo besteak aktibatzen dituzte irakasleek.
- Dokumentazio gunea:** Irakasleek sortutako apunteak eta ikastaroa gainditzeko oinarriko bibliografia ikus daitezke gunean.
- Foroak:** Irakasleek zabaltzen dituzte, ikasleek gai zehatzen inguruan iritzia eman dezaten. Edo maisu-maistrek ikasle jakin bati galdatzen diote zerbaitez jendaurrean mintzatzeko.
- Kafetegia:** Ikasle gunea. Irakasleak ezin dira solasgune moduko gela honetan sartu.
- Iragarki ola:** *On-line* ikastaroen arreta zerbitzuaren ordutegia eta bestelako oharrik miazteko gunea da.
- Agenda:** Ikasle bakoitzak berea dauka.
- Erabiltzaileak:** Ikastaroko kideen datu orokorrak bertan ipintzen dituzte.
- Kontsigna:** Etxeko ordenagailuan ez zaudela, lanak gordetzeko txokoa da.

HUHEZIKo 'on-line' ikastaroen kudeaketaz arduratzen diren lagunekin solastatu gara, Internet bidezko hezkuntza programetan sakonago murgiltzeko xedez.

Iban Ocio • Eskoriatza

On-line hitza gero eta gehiagok darabilte; goi mailako hezkuntzari lotutako teknologia berrien zutari bihurtu da. Eskola agintariak aise ohartu dira unibertsitateen lehiakortasuna handiagoa izateko beharrezkoa dela Internet bidezko ikastaroen emaria. Campus birtualak, hala, dezente hedatu dira azkenaldion. Eskoriatzako HUHEZI Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean ere bai. Aurtun, estreinakoz eskaini dute Hizkuntzen Psikopedagogia lizentziatura. Halaber, bospasei master eta modulu apailatu dituzte. Programon arduradunekin mintzatu gara. Eta alegiazko guneotako ikasleekin.

Gela birtualen jatorria

HUHEZIKo IKT Informazio eta Komunikazio Departamenduko zuzendari Mikel Usabiagak *on-line* ikastaroen sorburua zehaztu du: «Euskal Herrian jende asko dago behar egin eta ikasi batera egin gura duena. Horiei,

baina, gaitza zaie eskolara maiz joatea. Internet bidezko ikastaroek denbora trabak gainditzeko berrak berak dute». Dena den, HUHEZIKo *on-line* programek lantzean behin eskolara etortzea behartzen dute ikaslea. Aurrez aurreko eskolak osagarri garrantzitsuak dira.

Ikaskuntza prozesua

Eskolako *on-line* ikasketen arreta zerbitzuko zuzendari Ane Urizarrek, bestalde, Internet bi-

dezko ikaskuntza labur azaldu du. Hizkuntzen Psikopedagogia ikasle dabil. Beraz, ondo ezagutzen ditu hasiberriek izaniko komerriak. «Gune birtualen eta ohiko ikasgelen arteko aldea bakarra da: lekukotasuna. Batean, ordenagailu aurrean, etxeko arropekin zaude. Bestean, kalean. Bietan ere maila bereko edukiak jorratzen dituzu».

Areago oraindik, Urizarrek aitortu du maisu-maistrek zorrotzago kontrolatzen dituztela ikasleak. Izan ere, «irakas-

leei une oro pantailan agertzen zaie zeintzuk ikasgai landu dituzun. Gainera, piperrik ezin duzu egin; irakasgai batetik bestera pasatzeko aurreko denak gainditu behar dituzu. Hala, egunero-egunero ikasi behar duzu».

Ikaskuntza ereduari dagokionez, Urizarrek oinarriko prozedurak azaldu ditu: «Ikasturte hasiera ikasleak Eskoriatzara datoz. Maisu-maistrek kurtsoen inguruko informazio oinarrikoena ematen diete. Guk, berriz, ordenagailu aurrean eroso sentitzeko gomendioak helarazten dizkigu». Gero, ikasleek etxea dute lantoki. HUHEZIKo webgune gela birtualen moduluak egituratuak daude ikasgaiak. Bestelako baliabide mor-
do ere gozatzen dute.

Feedback oparoa

Urizarrek argitu du HUHEZI fakultateko filosofia *on-line* ikastaroetan ere islatzen dela. «Ikasle eta irakasleen arteko harreman estua ziurtatu dute. Ikasleek nahi beste hitz egin dezakete maisu-maistreakin: telefonoz, Internet bidez edo Eskoriatzara joanez. Gainera, arreta zerbitzuko kideok astegun, zubi eta oporraldi luzeetan behar egiten dugu. Arazo teknikoak badituzte, ia noiznahi deitu gaitzakete».

Azterketa sistema, konplexuena

Mikel Gereka nafarrak Hizkuntzen Psikopedagogia hartu du lan-gai. Berak aipatu dizkigu sareko ikastaroen bitxikeriak. «Batetik, sistema informatikoa menderatzea zaila da. Askotan arazo teknikoak pairatzen ditugu. Egia da, halaber, arreta zerbitzuko teknikariek ondo laguntzen gaituztela. Bestetik, ordenagailu aurrean ikasteko ohitura hartu behar duzu; lan eskerga betiere aurrez aurreko eskoletan jardun dugunontzat. Azkenik, azterketak Internet bidez egiten trebatu behar duzu. Berezitasunik nekezena, apika. Izan ere, pare bat ordutan gogoeta egin, hausnartutakoa idatzi, eta den-dena irakasleari bidaldi behar diozu, sareko komunikazioa tratatzen duten arazoez gandi. Izerdi franko ateratzen dugu azterketa garaian». Horregatik edo, badaude proba elkarren artean egiten ahalegintzen direnak. Alferrik da, ordea. Lagunaren izkribua miazten denbora larregi galtzen baita.